

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ERAKUNDE AUTONOMO, ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKO ETA SOZIJETATE PUBLIKOEN KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2011.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen eta Sozietate Publikoen 2011ko ekitaldiaren fiskalizazioa mamitu du, EA Eren partaidetza % 50etik gorakoa zutenena. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten ondoko sozietateetan eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoan.

- STC-ELS, SA
- VISESA
- ETS

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2011ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan jaso diren hainbat akats salbuetsita.

Honela, bada, langileria dagokionez, HKEEk azpimarratu du ETSk lan kontratupeko langileei eutsi egin diela 2010eko abenduko ordainsariak eta honenbestez, urratu egin du 39/2010 Legeak agindutakoa, 2011ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrek onesten dituen. Berebat, aipatutako Legeak mugatu egiten ditu 2011ko ekitaldian sektore publikoko langileen kontratazioak; STC-ELS, SAk eta ETSk, baina, urratu egin dute legea, hurrenez hurren, hiru eta bi langileri alta eman dietelako.

Horrez gain, Epaitegiak adierazi du STC-ELS, SAren kasuan ezin egiaztatu izan dela kontratu finkodun hiru pertsonen kasuan berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete diren.

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez ez-betetze jakin batzuk azaleratu dira erakundeetan eta bi sozietate publikoetan; azpimarratzekoa da hiru kasuetan gastuak

kontratu txiki modura izapidetu direla, Kontrataziorako Barne Aginpideetan ezarritako prozedurak urratuz.

Gainera, STC-ELS, SAK eta ETSk, hurrenez hurren, lau eta bost babesletza kontratu zuzenean esleitu dituzte, publikotasun eta lehiarik gabe.

Erakunde eta sozietateen urteko kontuei dagokienez, HKEEren iritzira, egoki erakusten dute 2011ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ekitaldi itxierako ondarearen eta finantza egoeraren isla zehatza; badira, ordea, txostenean bertan jaso diren hainbat salbuespen, ETSri dagozkionak.

Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu irizpen eta gomendioen atalean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Ez-betetze hauek nagusiki aurrekontuari, langileriari eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagozkie.